



PLAZAN buletina ELKANO 500

7. zenbakia

[El arte de Elkano-Uneak](#) 2
Antonio Casado Da Rocha

[Artea zertarako?,
gutun bat Getarira](#) 3
Beronika Azpillaga Larrea

[Biblioteka txokoa](#) 4

El arte de Elcano-Uneak



Zein da artearen zeregina gaur? Horixe Maialen Lujanbiok jarritako gaia Joseba Sarrionandiari, 2022ko azaroaren 20an, Tabakalera izandako elkarrizketan. Sarrionandiak erantzun zion Aristotelesen Erretorikako pasarte bat aipatuz, non diskurtso epidiktikoa (orainaldiari laudorioa edo gaitzespena), judiziala (iraganeko gertaeren argitzea) eta deliberatiboa (etorkizunean zer egin eztabaidatzea) bereizten diren. Deliberazio gutxi ikusten du Sarrionandiak gaur egungo artean: agian denbora gehiegi ematen dugulako iraganaz eta orainaldiaz judizioak egiten, alde ala kontra. Baina artearen zeregina baldin bada antolatzea elkarrizketa bat gure bizitzari buruz —hala esan zuen idazleak—, orduan lankidetzarako espazioak eraikitzeke premia handia dugu, deliberazio horiek egin ahal izateko.

Elkanoren bidaia gogorarazi didate hitz horiek. 16. mendean benetan zer gertatu zen ez dugu jakiterik guztiz, eta hala ere alde eta kontra jardun dugu aurtan, etengabe. Agian gogoratu beharko genuke (Enrique Santamaría *La vuelta de Elkanon* idatzi moduan) gizon horien zeregina ahal zuten moduan ogibidea lortzea besterik ez zela, ez inoren eredu izatea. Espainiako erregeak jarritako misioa Magallanesek ez zuen burutu. Elkanok egin zuena (mendebaldeko bideari ekin eta etxera itzuli, hain zuzen) ez zen erregeak eskatutakoa. Elkanoren bidaia pieza bat izan zen mundu berri baten konfigurazioan, baina berak erabakitakoa ez zegoen gidioan.

500 años después hoy vivimos momentos en los que, como hicieron Elcano y sus acompañantes, nos enfrentamos a los límites planetarios y a la sensación de «no hay vuelta atrás». Mucho conocimiento, aún más incertidumbre, peligros evidentes y no tan evidentes nos acechan. Hay capital para explorar nuevas vías, hay voluntad política también. Hay mucho que ganar, mucho que perder; somos peones en el tablero de fuerzas políticas, económicas y biofísicas que nos rebasan. Y el guion puede cambiar a mitad de la partida.

Estos momentos Elcano me recuerdan que hoy día pocas instituciones hay tan deliberativas como una universidad pública. Tal vez nuestra contribución más urgente sea recordar que necesitamos más que nunca reunir nuestros respectivos saberes e ignorancias para a continuación hacernos las preguntas que como sociedad necesitamos responder. ¿Son las asambleas ciudadanas una forma de arte? ¿No es la Inteligencia Artificial una forma de agregar la inteligencia colectiva? ¿Cómo diseñar y realizar experiencias deliberativas eficaces, ágiles y justas con todas las personas concernidas? ¿Qué combinaciones de ciencia, tecnología, arte y cultura necesitamos para generar visiones de futuro que activen nuestras mejores capacidades?

Elkanok egindakoa ez zuen berak bakarrik egin. Izan ere, bere agintaldiaren ezaugarri interesgarria da une garrantzitsu guztietan eskifaiarekin eta deliberazioaren bidez erabaki zutela zer egin. Bidaiaren azken zatian, «*llamamos a la gente para que diese sus pareceres sobre ir a las islas de Cabo Verde o en tierra firme, por tomar mantenimientos, y así deliberamos de ir a las islas y tomamos [la decisión] por más votos*». (Santamaría, p. 75).

Si hay algo que sabemos de Elcano, es que gobernó sus naves de manera muy distinta a Magallanes. No creo incurrir en anacronismo al concluir que fue un estilo de gobernanza más colaborativo, deliberativo y orientado a las alianzas con el entorno. La nao era una ruina, los enemigos poderosos, las probabilidades de éxito escasas, pero en los momentos cruciales supieron deliberar, elegir y acertar con la ruta y los aliados, y por eso llegaron a su destino en 1522.

No lo olvidemos en 2023.

■ Antonio Casado Da Rocha
UPV/EHUko Filosofia irakaslea

Artea zertarako?, gutun bat Getarira



«Amatxo maittia,

Getariyan ere Katalina ilargia pasiyuan ibiliko da zeru ilunean, hementxe txalupa gainean bezala, eta zuk begiratu egingo diyozu, guk hemedik egiten diyogun erara. Tori beste behin, nire pentsamenduak zuretzako, bat dugun Kattalina dugula lagun.

Uste dut amatxo, nire urtebetetzea pasa berri dela, hala dela uste dut, zeren eguberriak izan berri direla aipatu du hemengo kristau batek, hamabi beteberri ditudan urtiak beraz, hamaika zirelako etxian betetako azkenak, Getarin, sutonduan, elkarrekin ginela.

Txalupa hontatik, itxasoko urak haundi dire; sarri, orru eginez, gaina estaltzen du ta olatu bitsetan gera denok, ta ni, gorputz arinekoa naizelako, mastara lotzen naute txikote muturrekin urak ez eraman nezan, ta ni gogor gogor helduta geratzen naiz, ta Joxe, ni baino txikiago denez, sareen kutxan sartuta geratu behar da, barrenean, ez omen dago ta, inun lotu daitekeenik, arinegia baita.

Ekaitza baretzen denean, goseak gaudela dator gogora, eta sekula santan joaten ez den hezetasunean darrai egunak eta baita ere gauak.

Tremulok kontakizunak esaten dizkigu. Aurpegiari orbaina handi eta gorri bat dauka. Behin, ea nola egin zuen galdetu nion, eta askotariko moduetara sortuak izan diren bere gorputzean zehar ageri dituen aztarnen berri ematen hasi zen, eta istorio eta ipuinak kontatzen dizkugu, desamesekoak denak, eta inguruan gaitzala puztu egiten da, eta bere galanixakeriek hegodun arrainez, eta marmoka erraildoiz betetzen dute txalupa gain osoa.

Joxe nire adiskidea da, txikia izan arren, hodeietan irudiak ikusten sekulakoa da. Berak begizatzen dizkugu sei hankako ahari distiratsuak, adar kiribildu izugarriekin, eta sua dariela doazela antzematen duen lehena da, airean zehar taldean, zerutik ihesi antza; eta berak esan ahala, gero, besteok ere ikusi ahal izaten ditugu. Sorginkeria daukala bere begietan esaten diot nik, sorginkeria edo miraria; eta lehorreraterakoan, halako edo bestelako herriak eta jendeak aurkituko ditugula

aditzera ematen digu. Joxek nik baino hobeto erdiez, egiten du, baina neu ere moldatzen naiz. Esan zenidan ba ikasiko nuela ofizioaren bat, eta hitz egiteko moduak, eta izarrak ulertzen, eta agian, letrak ezagutzen. Akaso, denborarekin, hala balitz...

Momentuz, kantuak eta bertsoak buruan hartu eta moldatzen saiatzen naiz, barna hartuta daukaten minbera astun-triste hau uxatzeko, eta indarrez hornitzeko, halako batean berriz, Getarira itzuliko garelaren sinismena.

Ordu hori etorri arte, zaindu osasunez zeure burua eta inguruko den denak. Ordu hori etorri arte, besarkada estu estu bat.

Manueltxo,
1520. urtean, Victoria itsasuntzian»

Magallanes kapitainak untziratu zituen itsasgizonen artean, asko hamaika urtetik hamasei urte bitarteko mutil koxkorak ziren; marinel preziatuak, gaixotasunaren aurrean, gaztettoek osasuna gogorragoa zutela uste baitzuten (Etxebeste, 2021). Bestalde, kontutan izanik lanerako formakuntza lantokietan jasotzen zela (Galino, 1962), mutikoak txaluparatzea ofizioaren bat ikasteko modu zela onartzen zen senideen artean, eta txanpon batzuen truke, gaztettoak bidaltzen zituzten; sarri, adioa, betiko izaten zen arren.

Bibliografia:

- Etxebeste Aduriz, E. (2021) Mundua handitu zuen bidaia. Elhuyar aldizkarian 342, <https://aldizkaria.elhuyar.eus/erreportajeak/mundua-handitu-zuen-bidaia/>
- Galino, María Angeles, El aprendiz en los gremios medievales. (Revista Española de Pedagogía, 04/1962)

■ Beronika Azpillaga Larrea
Gipuzkoako Campuseko Euskararen
eta Kulturaren arloko zuzendaria

Biblioteka Txokoa

Oraingo honetan, liburutegiko apalak arakaten, gure begirada A-891.69 ARKOTXA SEP kodean pausatu da, hori baita Aurelia Arkotxa idazle euskaldunaren **Septentrio** liburuari dagokion biblioteka-koordinatua.

Aurelia Arkotxaren bila genbiltzan bere obra itsasoari oso lotuta dagoelako eta, irakurri dugunez, ([Berria, 2022ko martxoak 6](#)) «*bere buruaren izarira diseinatu mapak sortzen ibili d[elako] ttipitik... testuak eta mapak orainaldira ekarriz, berriatuz, arra marraztuz...*» eta baita euskarazko geopoetikara hurbiltzeko aukera ederra eskeintzen digulako ere. Bere espiritu nomadaz jabetuta, beste itsaso batzuetan bilatzen jarraitu dugu, liburutegitik kanpo, eta **Zertanaren** edertasunarekin egin dugu topo: hamahiru eskala poetiko-musikal, itsasertzean sortuak, itsas bidaia horizontean dela.


Bi proposamen hauek zuen gustukoak izatea espero dugu.

En esta ocasión, examinando las baldas de nuestra biblioteca, nuestra mirada se ha detenido en el libro señalado como A-891.69 ARKOTXA SEP, pues esa es la coordenada bibliotecaria correspondiente a **Septentrio**, de la escritora euskaldún Aurelia Arkotxa.

Buscábamos a Aurelia Arkotxa porque su obra está muy vinculada al mar y porque, según hemos leído ([Berria, 2022ko martxoak 6](#)) desde pequeña ha estado creando mapas diseñados a su medida...actualizando textos y mapas, reescribiéndolos, dibujándolos nuevamente «*bere buruaren izarira diseinatu mapak sortzen ibili d[elako] ttipitik... testuak eta mapak orainaldira ekarriz, berriatuz, arra marraztuz...*») y también porque nos ofrece una hermosa oportunidad de acercarnos a la geopoética en euskara. Sabiendo de su espíritu nómada, nos hemos aventurado a proseguir la búsqueda por otros mares, fuera de la biblioteca, y nos hemos encontrado con la hermosura de **Zertana**: trece escalas poético-musicales, nacidas en la orilla con el viaje marítimo por horizonte.

Esperamos que estas dos propuestas sean de vuestro agrado.

Gomendatutako materiala / Material recomendado



■ *Arkotxa, A. (2001). Septentrio. Alberdania.* <https://ehu.on.worldcat.org/oclc/1010678823>

Liburu honetan, lehenik, sartaldeko lehor aurkitu berrietara joan baino lehenago, sortaldera buruz abiatzen da autorea Marco Poloren eta Mandevilleren hatzei jarraikirik, kartografia fantasmagoriko bat irekiz.

Ondotik, manera autobiografikoago batean, ipar-mendebalderantz itzultzen da, lur berrietara buruz: ametsetarik bizi izanikakoen kontakizunera, baina beti Terra incognita eta Mundu aurkitu beharraren argitan. Ternuara joan aspaldiko euskaldunen aztarnak segituz, bere baitako gogo-bidea marrazten du. Eta, bururatzeko, liburuak zabalik uzten duen itsas espazio baztergabea, bakarrik: «Ontzia emeki-emeki desagertuz doa, itsasoa bakar, bazterra huts».



- **Arkotxa, A. eta Suarez, I. (2022). Zertana = Terre Ferme [Audioa].**

<https://soundcloud.com/zertana>

Argazki - literariozko Arkotxaren kontaketa Hendaiaiko portuari eta plaiari lotuak diren hamahiru argazkitan eta entzuten diren hamahiru testutan deklinatzen da, frantsesezko auto-itzulpenak ikus daitezkeelarik. Guztia, ingurumen osoan zabaltzen den ozeanotik jalgitzen diren hamahiru uharte harmoniko balira bezala, Suarezzen hamahiru sorkuntza elektro-musikalekin ezkontzen da.

Eskuko telefonoan edo tabletan entzun daitezke (33 minutuzko luzera), Abadiako eremuan in situ materialki egiten den oinezko ibilaldian, itsasbazterrean.

Edo beste leku batean, irudimenezko ibilaldian.



@EHUkultura

